

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

BIDASOAKO IKASTETXEETAN UME ETORKINEN AMA HIZKUNTZARI EMATEN ZAION TRATAERA

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Arriola Alava, Andoni

Tutorea: Reguero Ugarte, Urtzi

2019-2020 Ikasturtea

LABURPENA

Lan honen helburua Bidasoako ikastetxeetan ume etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera aztertzea eta horri erantzuna emateko hobetzeko proposamenak egitea da. Azterketa hau Bidasoa zonaldeko ikastetxeetan egin denez, hasieran Gipuzkoa eta Nafarroako migrazioen datuak ezagutaraziko dira azken urteetan izandako immigrazioaren hazkundearen datu errealak ezagutzeko. Gero, hezkuntza elebidunaren aurrekariak azalduko dira eta autore desberdinek gai honen inguruan dauzkaten iritziak. Honen ondotik, ikastetxe ezberdinetan egindako azterketa irakurtzeko aukera izango da, ikastetxe bakoitzaren testuingurua, azterketa egiteko erabilitako teknikak, lortutako emaitzak eta ateratako ondorioak azalduz. Amaitzeko, ikastetxe bakoitzari egindako hobetzeko proposamenak azalduko dira.

Hitz gakoak: Ikasle etorkinak, ama hizkuntzaren trataera, hezkuntza elebiduna.

RESUMEN

El objetivo de este trabajo es analizar el tratamiento que reciben las lenguas maternas de los niños inmigrantes en los colegios de la zona del Bidasoa y hacerles unas proposiciones de mejora con el fin de darle una respuesta. Para empezar se ha analizado la cantidad de niños inmigrantes que han llegado a nuestras aulas centrándose en Guipúzcoa y Navarra, ya que la zona del Bidasoa abarca las dos provincias. A continuación, se ha hecho una investigación bibliográfica dando a conocer cuales fueron los precursores de la educación bilingüe y la situación en la que se encuentran las lenguas maternas de los alumnos inmigrantes. Después, se hará la investigación de los colegios; para ello, primero se dará a conocer el contexto de cada colegio y las técnicas utilizadas para dicha investigación. Luego se conocerán los resultados obtenidos y las reflexiones hechas a partir de los resultados. Por último, se les hará unas propuestas de mejora a los colegios con la intención de que mejoren el tratamiento que le dan a las lenguas maternas de los alumnos inmigrantes.

Palabras clave: Alumnado inmigrantes, tratamiento de la lengua materna, educación bilingüe.

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta Justifikazioa	4
2. Marko Teorikoa	5
2.1. Ume etorkinen eskolatzea EAEn eta Nafarroan.....	5
2.2. Hezkuntza elebidunaren aurrekariak.....	8
2.3 Ikasle etorkinen ama hizkuntza.....	11
3. Metodologia	13
3.1. Ikastetxeen Testuingurua.....	14
3.2. Ikerketa garatzeko teknikak.....	20
4. Emaitzak	21
5. Ondorioak	23
6. Hobetzeko Proposamenak	26
7. Bibliografia	30
8. Eranskinak	31
1. Eranskina: Zuzendariari egindako galdetegia.....	31
2. Eranskina: Irakasleari egindako galdetegia.....	35
3. Eranskina: Behaketa zerrenda.....	37

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan Euskal Herriko ikastetxeetara etorri diren ume etorkinen kopuruak hazkunde deigarria izan du, eta honek ikasgeletan hizkuntza desberdin anitz biltzea ekarri du, asko irakasleentzat ezezagunak direnak. Egoera berri honek ikastetxe askoren planifikazioa hankaz gora jartzea ekarri du, beraien metodologia eta proiektuak berritzera behartuz ikasle hauei harrera egoki bat egin diezaieten eta eskola-arrakasta bermatzearren. Gainera, EAE eta Nafarroan erroturik zegoen hezkuntza elebiduna kolokan jarri du ikasle berri hauek ezaugarri eta behar ezberdinak dituztelako.

Nire lehendabiziko bi praktikaldiak Gasteizko bi ikastetxe publikoetan egin nituen eta bertan egoera berri hau gertutik ezagutzeko aukera izan nuen, bai eta gai honekin lehenengo hartu emanak izateko ere. Izan ere, nire lehendabiziko praktikan nire tutoreak onartu zidan ikasleen notak ikusita oso erraza zela ume etorkinak eta bertakoak ezberdintzea, bertakoak zirenak nota hobeto ateratzen zituztelako. Honek harriturik utzi zidan, egoera zein zen jakinda ere ez zutelako inolako neurririk hartzen egoera hobetzearren, ordu arte erabiltzen zituzten proiektu berberak erabiltzen jarraitzen zuten. Bigarreanean, aldiz, ume etorkinen ama hizkuntzari indar gehiago ematen zioten eta orokorrean ume etorkinek emaitza okerragoak lortu arren, ikasle etorkinen eta bertakoen emaitzen arteko aldea ez zen hain nabaria. Hala ere, hirugarren praktikaldian ohartu nintzen egoera guztiz desberdina zela herri txikiak eskoletan eta hirietakoetan. Izan ere, nire azken praktikaldia Lesaka herriko Irain eskola publikoan egin nuen eta bertan etorkin gutxi egoteaz gain, haien ama hizkuntzari ematen zaion trataera oso pobrea da.

Beraz egoera berbera Bidasoako gainontzeko ikastetxeetan errepikatzen zen jakin nahi nuen, hau hartuz gaiaren helburutzat, hots, Bidasoako ikastetxeetan ume etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera.


2. MARKO TEORIKOA

2.1. Ume etorkinen eskolatzea EAEn eta Nafarroan

Herrialdeen arteko mugimendua areagotzen ari den heinean, gure gizartera etortzen ari den pertsona kopurua ere handitu egin da. Azken urteotan, gainera, mugimendu hau bereziki handitu egin da, hots, azken urteotan etorkin gehiago etorri dira gure herrialdera aukera berrien bila.

EAEn eta Nafarroan mugimendu hau ere nabaritu egin da, bertako biztanle kopurua nabarmenki handitu baita. INEko datuak aztertuz, 2010. urtean EAEn 2.181.087 biztanle zeuden eta gaur egun, 2.206.965.

Evolución de la población en País Vasco



1. Irudia: Euskadiko biztanleriaren bilakaera. *Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala in Epdata

Hazkunde hau ez da umeen jaiotzagatik eta barne migrazioagatik bakarrik gertatu, etorkinek ere zerikusi handia izan dute hurrengo taulan ikus daitekeen moduan. Emigrazioa asko gutxitu da aurreko urteekin alderatuta eta inmigrazioa aldiz handitu.


Evolución de la emigración e inmigración en País Vasco



2. Irudia: Immigrazio eta emigrazioaren bilakaera Euskadin. *Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala in Epdata

Nafarroako datuak aztertuta, fenomeno berbera gertatu dela ikus daiteke; izan ere, gaur egun 20.829 biztanle gehiago bizi dira Nafarroan 2010 urtearekin alderatuz. Hazkunde honen arrazoietakoa bat ere, gurera bizitzera etorri diren etorkinen kopurua handitu dela izan da.

Evolución de la población en Navarra, Comunidad Foral de



Evolución de la emigración e inmigración en Navarra, Comunidad Foral de



3. Irudia: Biztanleriaren bilakaera Nafarroan. *Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala in Epdata

4. Irudia: Immigrazio eta emigrazioaren bilakaera Nafarroan. *Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala in Epdata

Populazioaren hazkuntza nabarmen hau ez da soilik zenbakietan nabaritu, hezkuntza sisteman ere nabaritu egin da, gero eta haur etorkin gehiago baitaude euskal eskoletan ikasten. Errealitatea islatzen duten datuetan ikus dezakegunez, 1999/2000 ikasturtean, ikasle etorkinak EAEko hezkuntza sistema osoaren %0,78 ziren, eta 2010/2011 ikasturtean, ordea, %8,1 (Eusko Jaurlaritz, 2012). 2010-2011 ikasturtean EAEn 117.193 ikasle zeuden Lehen Hezkuntzan matrikulatuak horietatik 8.329 ikasle etorkinak izanik. 2018-2019 ikasturtean, aldiz, 130.625 ikasle zeuden matrikulatuta horietatik 10.437 ikasle etorkinak izanik (MEC, 2018). Horrek argi erakusten du EAEko hezkuntza sistemak gero eta ikasle etorkin gehiago hartzeko joera duela. Horietatik guztietatik 67.969 ikaslek hezkuntza publikoa aukeratu zuten eta 62.963 ikaslek pribatua (MEC, 2018).

Nafarroari dagokionez 2010-2011 ikasturtean 38.826 ikasle matrikulatuta zeuden hauetatik 4.747 etorkinak izanik. 2018-2019 ikasturtean, aldiz, 42.916 ikasle matrikulatu ziren baina ikasle etorkinak 3.699 ikasle izan ziren. (MEC, 2018) jaitsiera txikia izan arren, egonkortze joera bat salatzen dute datuek. 3.699 ikasle horietatik 321 ikaslek hezkuntza pribatua aukeratu zuen eta 3.378 ikaslek aldiz, publikoa. Beraz, argi dago ikasle etorkinek

hezkuntza publikoa aukeratzen dutela pribatuaren aurrean. Ikasle guztien datuak begiratuta datuak orekatu egiten dira, baina, oraindik ere desberdintasuna nahiko zabala da, 15.100 ikasle ikastetxe pribatua matrikulatuta egonik eta 27.816 ikasle ikastetxe publikotan (MEC, 2018).

Hezkuntza motaz gain, EAEn eta Nafarroan hizkuntza ereduak ere hautatzeko aukera dago, A, B, D eta X ereduak EAEn izanik eta Nafarroan A, B, D eta G ereduak. Ereduak berdinak dira bai Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan: A ereduak, gaztelaniaz ikasten da ikasgai bat euskara izanik; B ereduak euskaraz eta gaztelaniaz ikasten da; D ereduak euskaraz ikasten da ikasgai bat gaztelania izanik; eta azkenean, X edo G ereduak dena gaztelaniaz ikasten da. Datu hauek oso desberdinak dira Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan beheko taulatan ikus daitezkeen moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuak (Eusko Jaurlaritzak):

	A	B	D	X	guzt/tot
■ 2012/2013	7.356	31.510	82.421	852	122.139
■ 2013/2014	6.864	30.694	85.864	854	124.276
■ 2014/2015	6.532	30.017	89.584	868	127.001
■ 2015/2016	6.102	29.183	92.044	869	128.198
■ 2016/2017	5.618	28.659	94.364	880	129.521
■ 2017/2018	5.267	27.709	96.598	915	130.489

Nafarroako datuak (Nafar Gobernuak):

NAFARROA	A	B	D	G	GUZTIRA
PRIBATUA	2217	99	2655	10128	15190
PUBLIKOA	6127	4	8473	12441	27045
GUZTIRA	8344	103	11128	22569	42235

Amelia Barquinek (2009) azaltzen duen bezala, ikasle etorkin horiek egoera berri bat sortu dute euskal hezkuntzan. Etorkinen presentzia hezkuntzan ez da egoera berria, aspaldidanik egon baitira etorkinak hezkuntzan, bai ordea kanpotik etorritako ikasle horiek gure ikasgeletara ekarri duten hizkuntza aniztasun eta kultura zabalagoa. Immigrazio Behatokiaren arabera ikasle etorkinen %50.1 Amerikatik datoz, %21.5 Afrikatik eta gainontzekotik gehiena Europatik datoz, %21.5 alegia (Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2020). Hau horrela izanik, familia askoren jatorrizko hizkuntza hemengo hizkuntza ofizialeko bat ez izatea gertatzen da, bai eta familia eta eskolako ohiturak, kulturak eta arauak ere ezberdinak izatea.

Paisaia soziolinguistiko aberatsa ikusten da, baina jatorri ezberdineko eta ama hizkuntza desberdineko etorkinak izanik, aztertu beharra dago zer nolako trataera ematen zaien beraien ama hizkuntzei eskolan.

2.2. Hezkuntza elebidunaren aurrekariak

Gizakia hizkuntza bat baino gehiago hitz egiteko gai izatea aspaldiko gauza da; erdi aroan, adibidez, merkataritza garatu zenean merkataria herrialde desberdinetatik ibiltzen ziren hiri desberdinetan haien produktuak saltzen eta horretarako herrialde desberdinetako hizkuntzak ere ezagutu behar zituzten; honetaz gain, Toledoko hirian itzulpengintza eskola sortu zenean, testu grekoak eta arabiarak latinera eta herri hizkeretara itzuli ziren, argi utziz lan hau egin zutenek ere hizkuntza bat baino gehiago menderatzen zituztela. Gaur egun ere, oso arrunta da pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, Euskal Herrian bertan D ereduan ikasten dutenek euskara, gaztelania eta batzuk ingelesa ere mintzatzeko arazorik ez dute izaten, edota Indiako eta Singapurreko biztanleak ere hiru lau hizkuntzatan hitz egiteko gai dira (Bilbao, 1998). Hala ere, XIX. Mendearen amaieran eta XX. Mendearen hasieran elebitasunak gizakiaren adimena murriztu egiten zuela ustez zen (Bilbao, 1998).

1928. urtean Luxenburgon Elebitasunari Buruzko Nazioarteko Jardunaldian, haurra ama-hizkuntza ez zen batean eskolaratzea erabat kaltegarria zela erabaki zuten adituek, bai adimenaren eta bai pertsonalitatearen garapenerako. Bigarren hizkuntza ikastea ahalik eta beranduen egin behar zelako ustea zuten. Garai hartan hainbat herrialdetan haur elebidunek eskolan lortzen zituzten emaitza txarretan zeuden oinarrituta iritzi hauek; izan ere, etxean hizkuntza bat eta eskolan beste bat ikasten zuten haurrek askoz emaitza txarragoak lortzen zituzten haur elebakarrek baino, bai eskolako ikasgaietan eta bai adimen probetan ere. Horrelako ustea izan arren, haurrak etxekoa ez zen hizkuntza batean eskolatzen jarraitu zuten, eta Bigarren Mundu Gerraren ondotik hezkuntza elebidunaren aurrera pauso garrantzitsu bat eman zen.

1962. urtean, Kanadako Montreal hirian frantsesezko murgiltze programa abian jarri zuten. Haurrak ama-hizkuntza ez den batean eskolaratzeaz zegoen iritzia ez zen ona, baina, hala ere, gurasoek eskatuta, programa bat antolatu zen Montrealgo Saint Lambert eskolan. Garai hartan, Kanada segregatuta zegoen jende ingelesdun eta frantsesdunen artean eta Montrealen hizkuntza komunitate biak banatuak bizi ziren. Horrela, ingeles auzoak eta frantses auzoak zeuden, bai eta frantses eta ingeles dendak, elizak... eta ikastetxeak. Aipatutako gurasoek ez zuten haien seme-alabak banaketa horren partaide izaterik nahi eta horretarako, haiek ingelesdunak izanik, frantses hizkuntzan txikitatik murgiltzea erabaki zuten, etorkizunean komunitate batekoekin zein bestekoekin elkarbizi ahal izateko.

Aldi berean, W. Lambert eta E. Peal ikerlariek programa berezi honetaz baliatuz elebitasunaren inguruko ikerketa bat egin zuten, orduko emaitzak konprobatzeko asmoz. Ikerkuntzan espero gabeko emaitzak lortu zituzten, bai etxeko ingelesa eta eskolan ikasitako frantsesa menperatzera iritsi baitziren.

Emaitza horiek oihartzuna izan zuten hezkuntzan eta beste herrialde batzuetan programa hau errepikatu zuten, baina, emaitzak ez ziren Saint Lambertekoa bezalakoak izan, emaitza txar gehiago lortu ziren onak baino. Orduan, Montrealgo konklusioak beste kasu batzuetara ezin aplikatzeak sortu zituen kritikei erantzuteko, Lambertek jokoan diren hizkuntzetako bakoitzaren indarra eta prestigioa zela ezberdintasunaren gakoa azaldu zuen eta bi elebitasun mota ezberdindu zituen: elebitasun kentzailea eta gehitzailea. Lehendabizikoan, haurren ama-hizkuntza, gizarteko hizkuntza ahula da eta eskolan ikasten dutena hizkuntza indartsua. Halako kasuetan, haurrak bere ama hizkuntza baloratuko du baina, honetaz lotsatu ere egingo da eta azkenean bere ama-hizkuntza baztertuko du eta gizartean indartsuagoa den hizkuntzan barneratuko da. Kasu honetan, umeak eskolan bigarren hizkuntza ikasiko du eta berea galdu edo garatu gabe utziko du. Bigarren kasua aldiz, haurren ama-hizkuntza indartsua denean gertatzen da. Gizartean indarra daukanez ez dute baztertuko eta eskolako hizkuntzak lekurik kenduko ez dioenez, hau ere menperatzera iritsiko dira, hau da, eskolan bigarren hizkuntza garatzeaz gain bere ama hizkuntza ere garatuko dute hau galdu gabe. Arrazoi honengatik esaten zaio lehendabizikoari kentzailea, hizkuntza batak besteari lekua kentzen diolako, eta besteari gehitzailea, etxekoari eskolako hizkuntza gehitzen zaiolako.

Saint Lambertean sortu zen programari murgiltze linguistikoko programa deritzo. Programa honen bitartez haurrak elebidunak lortzea helburu zuten, eskolan etxean ikasteko aukera ez zuten hizkuntza ikasiz.

Gaur egun programa asko daude elebitasuna lantzeko, hainbeste dira, ezinezkoa litzateke programa guztien berri ematea; herrialde bakoitzean, gainera, bertako egoera soziolinguistikora egokitutako programak ere sortzen baitituzte, Euskal herriko kasuan, A, B eta D programak bezalakoak. Programa hauen sailkapena egiteko, autore askok lehendabizi multzokatu egin dituzte eta ondoren sailkapena egin, baina, egindako sailkapen guztiak oso ezberdinak dira. Izan ere, programa elebidunak hainbat kokaleku, baldintza eta helburu ezberdinez antolatu izan dira eta hartzen diren irizpideen arabera oso sailkapen ezberdinak sortzen dira.

Orain aztertuko diren programak azaltzeko Bilbaok (1998) liburuan aintzat hartzen dituen bi ezaugarrietan oinarrituko da azterketa; alde batetik, programaren helburua eta

bestetik hizkuntzen tratamendua. Lehenengo ezaugarriak, programaren helburuak, bi helburu izan ditzake: hurrek eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzak ondo menperatzea edo ezagutzen duten hizkuntzetako bat bakarrik menperatzea. Bigarren helburu hau bilatzen duten programak azpiratze programak dira. Programa hauen helburua, komunitate txikitako haurrak, zailtasun handirik gabe, gehiengoaren hizkuntza ikastea da, hau da, haurrak eskolan ikasitako hizkuntzak etxean ikasitakoa ordezkatzeko, azpiratzea. Hizkuntzen tratamenduan oinarritzen diren programak eta beraz, haurren elebitasun erreala bilatzen duten programak bi dira: murgiltze programak eta mantentze programak. Bi programa hauek ezberdintzeko bakoitzak hizkuntzari ematen dion trataeran zentratu behar gara; izan ere, hiru jokaera ezberdin izaten ditu eskolak hizkuntzei ematen dien tratamenduan: lehenengoan, irakaskuntza haurren ama-hizkuntzan egiten da; bigarrean, irakaskuntza bigarren hizkuntza batean egiten da, baina, ama-hizkuntza kontuan hartuz; eta hirugarrean, irakaskuntza bigarren hizkuntza batean egiten da, ama-hizkuntza kontuan hartu gabe. Lehen jokabidea mantentze programetan aurki dezakegu; haurrak etxeko hizkuntza mantentzen duen aldi berean gizarteko hizkuntza ere ikasten du. Bigarren jokabidea murgiltze programetan aurkitzen da, haurrak bigarren hizkuntzan ikasten du, gizartean gehiengo dena, bere jatorrizko hizkuntza baztertu gabe. Bi kasu hauetan haurrak elebidunak izatea lortzen da. Hirugarrean, aldiz, azpiratze programetan gertatzen da, zeinetan, haurrak bigarren hizkuntza ikasten duen, gizartean gehiengoarena dena, etxekoa baztertuz.

Programa hauetaz gain, badago beste programa bat hainbeste zeresanik sortu ez duena, gehiengoaren hizkuntzetan antolatutako hezkuntza elebiduna. Programa honetan, bi hizkuntzatan ikasten dute, bertako hizkuntza ofiziala eta ingelesa. Euskal Herriko kasuan, euskara goستن denez, programa hau euskaraz eta ingelesez garatuko da. Hala ere, ikastetxearen arabera aldatuko dira hizkuntzak, izan ere, programa mota hau ikastetxe pribatu eta kontzertatuetan izaten dituzte, beraz, haiek erabakitzen dute ze bi hizkuntza erabili.


Euskal Herriko egoera aztertuta EAEko eta Nafarroako "D" eredu, ama hizkuntza euskara duten umeentzat, mantentze programak direla ondoriozta daiteke; ikasle euskaldunek beraien ama hizkuntza, euskara, ikasten dutelako, eskolak hizkuntza honi ematen diolako garrantzia. Honetaz gain, gaztelania ere ikasten dute, nahiz eta euskal gizartean ez izan estatu mailan hizkuntza indartsua dena, eta ondorioz, hau ikasteko eta erabiltzeko motibazioa izaten dute. Aldi berean, ama hizkuntza gaztelania daukaten ikasleek, murgiltze programetan sartzen dira D eredu ikastean, beraien ama hizkuntza gizartean eta eskolako ikasgai batean ikasteko aukera dutelako, baina, hezkuntzaren oinarria beraien ama

hizkuntza ez den hizkuntza bat delako. Gainera, hizkuntza horretan ikasteko erabakia boluntarioa da, EAEn eta Nafarroan gaztelaniaz ikasteko hezkuntza ereduak ere daudelako.

Honetaz gain, haur etorkinak gure hezkuntzan barneratzeko bai, EAEn eta bai Nafarroan programa berezi batzuk garatu dira ikasle etorkinak geletan barneratzeko. Nafarroan, ikasle etorkinak iritsi berri eta hemengo hezkuntzari buruz ezer ez dakitenean, informazioa emateko gida bat prestatuta dauka, zeinetan, bertako hezkuntza aukera desberdinak agertzen diren: ikastetxeak, hizkuntza ereduak, kontaktuak eta abar. Halaber, ikastetxeak beraien programa osatu ahal izateko, *ikasle etorkinei harrera egiteko programa* izeneko programa bat egin dute, zeinetan, ikasle hauei zein harrera egin, hasierako ebaluazioa nola egin, gelan nolako harrera egin... agertzen den. Euskal Autonomia Erkidegoko planetan aurten argitaratutako plan bat eskuragarri dago edozein ikastetxerentzat: *Eskola inklusiboa garatzeko Esparru-plana 2019-2022*. Plan honetan, izenburuak dioten moduan, inklusibotasuna garatzeko plan baten adibidea ematen da, zeinetatik ikastetxeak informazioa har dezaketen. Honetaz gain, ikasle etorkinetan gehiago zentratuz, 2004 urtean argitaratutako liburu bat eskuragarri dago *Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak* izenekoa. Liburu honetan, Nafarroako bigarren planean ikusi dugun bezala, ikasle etorkinentzat harrera-plan egoki bat egiteko aholkuak ematen dituzte, zuzendaritza taldearen jardueraren inguruko orientabideak, irakasle taldearen eta zikloko irakasleen inguruko orientabideak eta abar. Hala ere, plan bakar batean ere ez da ikasle hauen ama hizkuntzak gelan izan behar duen presentziaz hitz egiten. Zer garrantzia dauka ume etorkinen ama hizkuntzak ikasle etorkinen eskolatzean? Zein papera jokatzen du? Nolako tratamendua eman beharko litzaioke?

2.3 Ikasle etorkinen ama hizkuntza

Jakina da ume etorkinen ama hizkuntzak garrantzia handia daukala hauen eskolatzean eta eskolako hizkuntza ikasterako orduan (Cummins, 2001); izan ere, Jim Cumminsek, Elkarmenpeketasunaren Teorian azaltzen duen bezala, ikasle batek eskolako hizkuntzan lortuko duen gaitasun maila etxeko hizkuntzan lortzen duenarekin lotua dago. (Cummins in Bilbao, 1998). Teoria honen arabera, hizkuntza gaitasunak izeberg baten antza du: azalean bi hizkuntzek antzik ez izan arren, agerian ez dagoen mailan, komunikaziorako gaitasuna bera dutela hizkuntza guztiek azaltzen du. Hau da, hizkuntzak erabileran banaturik daude, baina, sakoneko gaitasunean loturik (Bilbao 1998). Horregatik, oso garrantzitsua da, ikaslearen H₁a, ama hizkuntza, garatzea eta maila on bat lortzea, modu honetan errazagoa egingo zaiolako H₂aren ikaskuntza.



5. Irudia: Cummins-en El karmenpeketasunaren teoriaren grafikoa. *Iturria:* Baker, C in Bilbao (1998).

Honetaz gain, elebitasunak ikasleen hizkuntza eta hezkuntza garapenean eragin positiboa daukela azaltzen dute ikerlariek. Izan ere, ikasleak haien ahalmenak bi hizkuntza edo gehiagotan garatzean, hizkuntza beraren ulermen handiagoa lortzen dute, bai eta hau modu eraginkorrean erabiltzeko ahalmena ere. Hizkuntza bat prozesatzeko momentuan ere, gainontzeko ikasleak baino trebeagoak dira, bereziki, irakurtzen eta idazten ikasteko momentuan (Cummins 2001).

Oraindik ere, irakasle batzuk ikasle etorkinen eskolatzean haien ama hizkuntza garatzea eta eskolako hizkuntzari indar gutxiago ematea erabaki txarra dela uste dute, honek ikasleari eskolako hizkuntza ikasteko denbora kenduko diolako. Baina, uste hau okerra da, izan ere, aurreko puntuetan ikusi dugun bezala hizkuntzak elkarren arteko harremana daukate, beraz, haien ama hizkuntzan ikasten dituzten abilezia eta kontzeptu intelektualak gero, eskolako hizkuntzaren ikaskuntzan erabiliko ditu nahiz eta beste hizkuntza batean ikasi. Adibidez: ikasle batek bere ama hizkuntzan ordua erraten ikasi badu, horrek esan nahi du ordua ematearen kontzeptua ikasi duela. Beraz, beste hizkuntza batean orduak ikasterako momentuan, ez du berriz ere ordua ematearen kontzeptua ikasi behariko, etiketa eta eura berriak ikastearekin nahikoa izango du. Gauza berbera gertatzen da, ikasleak gizarteko hizkuntza nagusia haien H_1 denean; Euskal herriko kasuan, ikasle batek ama hizkuntza gaztelania duenean, honi ere, bere ama hizkuntzan egin behariko zaio euskara ikasten joan ahala eta pixkanaka euskarari leku gehiago ematen joan.

Argi dago, aurretik aipatutako arrazoi guztiengatik, ume etorkinen ama hizkuntzak rol aktibo izan behar duela hauen eskolatzean, baina, nola lortu elebitasuna arrakastatsua izatea? Arrakasta lortzeko baldintzetako bat, familien borondatea da, hau da, familiak haien borondatez programa aukeratzea, modu honetan ikasleak jarrera positiboa izan dezan, bai programarekiko, bai bigarren hizkuntzarekiko, bai bere hizkuntzarekiko eta bai bere buruarekiko. Aldiz, familiak beraien hizkuntza ez den beste batean haien umeak eskolatzera derrigortuak baldin badaude, haurrek ez dute izanen aurretik aipatzen zen jarrera positiboa, oso zaila baita norbaiti beste hizkuntza bat ikasteko eskatzea beste hizkuntzako pertsonak bere hizkuntza errespetatu eta baloratzen ez dutenean (Besalu-Vila, 2007). Beste baldintza, irakasleak elebidunak izatea da, modu honetan, nahiz eta ikasleak bere ama hizkuntza erabili irakasleak ulertzen jarraituko diolako komunikazioa eten gabe.

Gaur egungo egoera azterturik, bigarren baldintza betetzea ezinezkoa da munduko leku guztietatik etorritako ikasleak daudelako eta ikasle horien guztien ama hizkuntza ezagutzea ezinezkoa delako. Gainera, nahiz eta ume etorkin baten ama hizkuntzan ikasi eta gelan erabiltzen hasi, baliteke ume hori kurtso erdian hiri edo herri horretatik joan behar izatea eta beste herrialde bateko ikasle bat etortzea, guztiz desberdina duen hizkuntza bat hitz eginez. Horren orde, irakasleak rol berri bat hartu behar du. Irakasleak gelan esan eta egiten duenaren esanahia etengabe negoziatu behar du kanpotik etorritako ikasleekin, irakasleak denbora guztian ziurtatu behar du egin eta esaten duena ulertzen duela. Hau bermatzeko, input ulergarri edo input egokitu bat erabili beharko du ikaslearen ulermen mailara egokitzeko. Laburtuz, gelan hezkuntza giro bat sustatu behar da, zeinetan, ikasle guztiak gelan egin eta esaten denaren esanahien etengabeko negoziazioan parte hartzen duten (Besalu-Vila, 2007). Honetaz gain, gelan ume horien hizkuntzaren presentzia egon behar da, adibidez, kartelak eskolako eta ume etorkinen hizkuntzekin, muralak bi hizkuntzetan eta abar.

Behin gaiari buruzko adituek esaten dutena jakinda, interesgarria iruditu zaigu ikastetxe desberdinetara hurbiltzea, praktikan ikasleen ama hizkuntzei nolako trataera ematen dieten aztertzeko. Hurrengo atalean egindako azterketan sakontzeko aukera izango duzue.

3. METODOLOGIA

Lan honen helburu nagusia, Bidasoa zonaldeko ikastetxetan ume etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion erabilera aztertzea da. Horretarako, Bidasoa ibaiak zeharkatzen dituen herri desberdinetako ikastetxetara hurbildu naiz, bertako zuzendariari eta irakasle bati elkarrizketa bat egiteko. Arazo asko izan ditut elkarrizketak egiteko orduan, ikastetxe asko ez

baitira prest egon nirekin hitz egiteko; hala ere, Bidasoako eremu desberdinetako ikastetxeekin hitz egitea lortu dut, zehazki, Elizondoko Baztan ikastola, Lesakako Irain Eskola Publikoa, Berako Ricardo Baroja Eskola Publikoa eta Iruneko Toki Alai eta Dunboa Ikastetxeak. Beste bi ikastetxe gehiagorekin lana egiteko asmoa nuen baina hauen ezezkoaren aurrean aurretik aipatutako ikastetxeekin egin dut. Hurrengo lerroetan ikastetxe hauen testuingurua azalduta eta ikerketa egiteko erabili ditudan teknikak aurkituko dituzue.

3.1. Ikastetxeen Testuingurua

Lesaka-Irain Eskola Publikoa

Irain eskola publikoa Lesaka herrian dago. Lesaka Nafarroa Garaiko udalerrri bat da, zeinek, beste lau herrirekin batera, Etxalar, Igantzi, Arantza eta Bera, Bortzirietako eskualdea osatzen duen. Lesakan 2750 biztanle bizi dira, herrian zein mendian kokatuak daudenak. Betidanik herrian nekazaritza eta abeltzaintza izan dira sostengu ekonomiko nagusia, 60. hamarkadan herrian laminazio fabrika ireki zen arte. Honek Espainiatik jende asko lanera etortzea ekarri zuen, herriko biztanle kopurua ia bikoiztuz. Gaur egun immigrazio hori eten da eta kanpotik etorritako familia pare bat izan ezik, ume guztiak Lesakan jaio dira.

Irain eskola publikoak, izenak dioen moduan, eskola publikoa da eta D ereduan oinarritutako hezkuntza eskaintzen du 1978. Urtetik. Ehun eta hogeita hamasei ikasle eta hogeitaz irakasle osatzen dute ikastetxea. Ikasleak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan banatzen dira, bi hauetan lerro bakarra izanik, hau da, maila bakoitzeko gela bakarra dago. Saioak emateko hamar tutore, ingeleseko hiru irakasle, frantsesa, musika, gorputz hezkuntza eta erlijio irakasle bakarra, logopeda bat, PT bat eta orientatzaile batekin kontaktatzen du ikastetxeak. Honetaz gain, irakaskuntza ahalik eta eraginkorrena izatearren hainbat instalakuntza ditu: frontoi handi bat, parke bat, futbol eta saskibaloiko bi zelai, gimnasioa, psikomotrizitate gela, antzokia, liburutegia, zuzendaritza gela, laborategia, musika gela eta jantokia.

Ikastetxeak, aurretik aipatu bezala, D ereduan oinarritutako ikaskuntza eskaintzen du, baina, euskaraz gain beste hizkuntza batzuk ere ikasten dituzte, hala nola, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Frantsesa berriki hasi dira ikasten eta hau, Frantziarekiko gertutasuna eta lan mundurako aukera irekitzeko helburuarekin egin da. Baina, bestetik ume etorkinen ama hizkuntzari oso garrantzi gutxi ematen diote. Hain garrantzi gutxi ematen diote, ez zaiola aipamenik egiten ez Harrera Planean ez eta eskolako beste proiektu batzuetan ere. Irakasleak eta zuzendariak dioten moduan, ez dugu inoiz programa berri baten beharrik izan euskara irakasteko, izan ere, gure ikaslearen gehiengoa Lesakan jaioa

da eta ama hizkuntza euskara dute; gainontzeko ikasleei dagokionez, beti euskaraz ikasiak iritsi dira, Irun, Oiartzun, Orereta... honelako herri handietan ikasi ondoren iritsi dira gure ikastetxera.

Irain Eskola 137 ikasleen heziketaz arduratzen da zeinetatik, 53 Haur Hezkuntzan ikasten duten eta 84ek Lehen Hezkuntzan. Ikasle guzti horietatik, hamabi bakarrik dira etorkinen seme alabak, gainerako guztiak, bertan jaiotakoak dira; Maroko, Ekuador, Errumania, Uruguai eta Brasil jatorrikoak dira. Guraso guzti hauek gaztelaniaz hitz egiten dute, horregatik, orain arte ez da arazorik egon ikastetxea eta gurasoen arteko komunikazioan.

Nik aztertutako gela bigarren mailako gela izan da. Hemezortzi ikaslek osatzen dute gela, guzti horietatik ikasle bakarra guraso etorkinak dituen izanik. Ikasle honek gurasoak ekuadortarrak dira, baina, bera jaiotzen irunen bizi izan da, bai eta bertan ikasi ere. Horregatik, bere ama hizkuntza gaztelania da, baina hala ere, euskararen oinarri txiki batekin iritsi zen eskolara. Bere gurasoak gaztelania dute ama hizkuntza, beraz, ez dute arazorik izaten irakaslearekin hitz egiteko orduan. Beste ikasle guztiak herriak jaiotakoak dira.

Bera-Rikardo Baroja Eskola Publikoa

Rikardo Baroja eskola publikoa Bera herrian kokaturiko ikastetxe bat da. Bera, Lesaka bezala, Nafarroa iparraldeko Bortziriak eskualdea osatzen duen herri bat da. Bortzirietako herririk handiena da, 3.763 biztanle izanik eta honek ikastetxe bat baino gehiago izatea ekarri du; izan ere, Beran haur eskola, Lehen eta Haur Hezkuntzako hiru ikastetxe, eta Bigarren Hezkuntzako institutua daude. Lehen eta Haur Hezkuntzako ikastetxeak, Labiaga ikastola, Jesusen Bihotza ikastetxea eta Rikardo Baroja eskola publikoa dira. Ikastetxe hauetako ikasleak 6. Maila gainditzean herrian bertan dagoen Toki Ona institutuan jarraitzen dituzte ikasketak, Bortzirietako beste ikasleekin batera.

Aurretik aipatu bezala, nik Rikardo Baroja ikastetxean egon naiz datuak hartzen eta bertako egoera aztertzen. Gaur egun, 24 irakaslek osatzen dute klaustroa eta 3 urtetik 6. Maila bitartean 211 ikasleen heziketaz arduratzen dira. Ikasle guzti horietatik hamasei bakarrik dira, etorkinak edota guraso etorkinak dituztenak; Argentina, Ekuador, Venezuela, Dominikar errepublika, Brasil, Errumania, Moldavia eta Eslovakia jatorria dute.

Klaustroa 24 irakaslek osatzen dute, Haur Hezkuntzako lau irakaslek, 5 urteko gelan bi gela dituztelako A eta B; Lehen Hezkuntzako zortzik, bigarren eta hirugarren mailan bi

lerro dituztelako, hots, bi gela; eta 12 espezialistak, ingeleseko hiru, bi logopeda, Pedagogia Terapeutikako bi, orientatzaile bat eta musika, erlijio, gorputz heziketa eta frantsesa ikasgaietako bakoitzarentzat irakasle batek osatzen dute klaustroa.

Instalakuntzei dagokionez, frontoi txiki bat, Toki Onako ikasleekin elkarbanatzen duten kiroldegi bat, parke bat, jantokia, laguntza gela, liburutegia, psikomotrizitate gela, ordenagailu gela, zuzendaritza gela eta musika gela bat daukate ikastetxean saioak aurrera eramateko.

Rikardo Barojak, Lesakako Irain eskola publikoak bezala, D ereduan oinarritutako ikaskuntza eskaintzen du, ama hizkuntza euskara duten ikasleak hizkuntza hau mantentzeko eta euskara ez den beste ama hizkuntza bat daukatenak euskaran murgiltzeko. Hala ere, gaztelania, ingelesa eta frantsesezko saioak ere ematen dituzte, hauen oinarritzko ikaskuntza izateko. Ikastetxeko zuzendari eta irakasleekin hitz egitean, Lesakan aipatutako berbera esan zidaten, hots, ez dutela inoiz euskara irakasteko programa berezi baten beharrik izan, ez dutelako inoiz ikaslerik izan ikastetxera iristean euskaraz hitz egiten ez zekiena.

Azterlan izan dudan ikastetxe honetako ikasgelan hamar urteko hamalau ikasle daude. Horietatik, Moldabia, Brasil eta Ekuadorreko ikasle bat bakarrik dago gelan. Hiru ikasle hauek Haur Hezkuntza Euskal Herrian ikasi dute, zehatz mehatz, Pasaia eta Oiartzunen. Gurasoak urte asko daramate gure herrialdean bizitzen, horregatik, irakaslearekin hitz egiteko orduan ez dute arazorik izaten, gaztelaniaz hitz egiten ikasi baitutelako. Gainontzeko ikasle guztiak bertan jaioak dira.

Elizondo-Baztan Ikastola

Nire hasierako asmoa ez zen ikastetxe honetan azterketa egitea, Elizondoko eskola publikoan baizik, baina, hauekin kontaktuan jartzean nirekin lan egiteko intentziorik ez zutela adierazi zidaten, beraz, herriko beste ikastetxean egitea erabaki nuen, hots, Baztan ikastolan.

Baztango bailara, hamabost herriz osatuta dago, Almandoz, Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraiotz, Azpilikueta, Berroeta, Elizondo, Elbete, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekaroz, Oronoz Mugaire eta Ziga; hauek guztietatik Elizondo da hiriburua, bailara guztiko herririk handiena izateagatik eta beran Baztango Udala kokatuta dagoelako, bailara erdian baitago.

Baztan ikastola Elizondo herrian kokatuta dagoen udal ikastetxe publikoa da, baina, Elizondoko udala ikastetxearen titularra izan ordez, Baztango udala da honen titularra. Gainera, ikastola Nafarroako Ikastolen eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen partaidea da

eta Nafarroako bertze ikastolekin batera proiektu komunetan parte hartzen du, irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina, lan mintegi desberdinetan eta abar.

Baztan ikastolak bi egoitza ditu, bata Haur Hezkuntzako eta bestea Lehen Hezkuntzako; ni bigarrenean egon naizenez, honen inguruan mintzatuko naiz. Baztan ikastolan, Irain eskolan antzera, lerro bakarra dute, beraz, maila bakoitzeko gela bakarra daukate. Honetaz gain, irakaskuntza aberatsagoa egiteko hainbat gela desberdin erabiltzen dituzte; musika gela, ingelerako gela, liburutegia, eskulan tailerra, zientzia laborategia, ikus-entzunezko gela, informatika gela, jangela, gimnasio bat, jolastokia, frontoia, erabilera aunitzeko gela, irakasleen bulegoa eta administrazioa.

Irakasleriari dagokionez, 15 irakaslek osatzen dute klaustroa, Haur Hezkuntzako 4 irakaslek, Lehen Hezkuntzako 6 tutorek, musikako irakasle batek, Gorputz Heziketako irakasle batek, ingeleseko hiru irakaslek, Pedagogia Terapeutikoko irakasle batek eta Orientatzaile batek hain zuzen.

Baztan ikastolak D ereduan oinarritutako ikaskuntza eskaintzen du, hau da, ikaskuntzan zein irakaskuntzan prozesuan euskara da komunikazio tresna nagusia. Hala ere, gaztelania eta ingelerako klaseak ere ematen dituzte. Ume etorkinen ama hizkuntzaz galdetzean, garrantzitsua dela baina ikastetxean garrantzirik ematen ez diotela erantzun zidaten, eskolan dauzkaten ume etorkinak edo guraso etorkinak dituzten umeak, euskaraz hitz egiten dakitelako edota hori ikasteko helburuarekin ikastetxe horretan izena eman dutela esan zidaten.

Ikastetxean 206 ikasle daude, zeinetatik 10 etorkinak edo etorkinen seme alabak diren. Familia hauek Senegal, Nikaragua, Ekuador eta Dominikar Errepublika jatorrikoak dira. Familia guzti hauek gaztelaniaz hitz egiten dute, beraz ez dute arazorik izaten ikastetxearekin kontaktuan jartzerako orduan. Hala ere, bada ez bada, telefono bidezko itzulpengintza zerbitzua daukate.

Nik aztertutako gelan, 5. Mailan, 28 ikasle daude eta bi ikasle bakarrik dira jatorri atzerritarra dutenak; batek bi gurasoak etorkinak ditu eta besteak ama etorkina eta aita bertakoa du. Bi gurasoak etorkinak dituenak Senegaldarra da eta ama etorkina duena Dominikar Errepublikakoa da, baina bera Elizondon jaiotakoa da. Gainontzeko ikasle guztiak bertan jaiotakoak dira.

Irun-Dunboa Eskola Publikoa

Dunboa eskola publikoa Irun udalerrian Dunboa auzoan aurkitzen den Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea da. Ikasleen %70a etorkinak edo etorkinen seme alabak dira, izan ere, Dunboa ikastetxea doakoa da eta etorkinak hau aukeratzen dute ikastolen aurrean.

Irun Bidasoa eremuko udalerririk handiena eta Gipuzkoako bigarren udalerririk handiena da, 62.401 biztanle izanik. Frantziarekin muga egiten duen udalerrria da, eta honek kokapen estrategiko batean bihurtu du, betidanik lan eskaintza ugari izanik. Lan eskaintza ugari honengatik, jende asko bertara bizitzera joaten da. Horregatik etorkin asko bertara joaten dira bizitzera, Lesaka edo Beran gelditu beharrean. Hala ere, Irunetik Frantziara pasatzeko aukera gehiago daude eta honek ere etorkinak bertara bizitzera joateko erabakian eraginez. Irun hamar auzo handiz osatuta dago: Anaka, Artia, Anzaran, Behobia, Bidasoa, Dunboa, Landetxa, Olaberria, Santiago eta San Miguel.

Dunboa ikastetxea, aurretik aipatu bezala, Dunboa auzoan dago. 368 ikasle eta 21 irakaslez osatuta dago, 12 tutore eta 9 espezialistaz hain zuzen ere. Haur eta Lehen Hezkuntzako zerbitzua ematen du, bi hauek gelak bi lerroetan bereiziz. Etorkin kopuru handia izan arren, D ereduan oinarritutako ikaskuntza eskaintzen dute. Eraikin nagusi bat, zeinetan Haur Hezkuntzako lau eta bost urteko gelak eta Lehen Hezkuntzako gela guztiak dauden, eta eraikin txiki batez, zeinetan Haur Hezkuntzako bi eta hiru urteko gelak dauden, osatuta dago. Hala ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, eraginkorragoa izateko liburutegi bat, musika gela, gimnasioa, jantokia, informatika gela eta patio handi bat daukate. Gainera eskola kirola eta eskola garraioa zerbitzuak ere eskuragarri daude ikastetxe honetan.

Aipatu bezala 368 ikasle daude ikastetxe guztian zeinetatik 257 etorkinak diren. 26 herrialdeetako ikasleak dituzte, beraz ama hizkuntza desberdin asko dituzte. Gaztelania edo euskara ez dakiten familiekin hitz egiteko, telefonoz teleinterpretazio zerbitzu bat daukate.

Dunboa ikastetxean garrantzi gehiago ematen diote ume etorkinen ama hizkuntzari, izan ere, bertako programa ezberdinetan aipamen batzuk ageri ziren bai eta Harrera planean ere. Harrera planean, gurasoekin hitz egitean haien ama hizkuntzan erabiltzeko jartzen zuen, honetarako, behar izanez gero, interprete baten laguntzaz baliaturik. Halaber, guraso bileretan ere hauek nahiago zuten hizkuntzan egiteko jartzen zuen. Honetaz gain, kultur asteetan gela bakoitzean ume etorkin baten ama hizkuntza hartu eta hitz batzuk ikasten dituzte. Hala ere, ikastetxeko hizkuntzaren ikaskuntzan ez diote garrantzirik ematen, irakasle batek kenduta, honek material berezi bat prestaturik daukalako honelako kasuetarako ikasleari laguntzeko.

Nik aztertu dudan ikasgelan, 5. Mailan, 21 ikasle daude zeinetatik 14 etorkinak edota etorkinen seme alabak diren. Ikasle hauek, Portugal, Errusia, Maroko, Sahara, Alemania eta Argentinatik etorritakoak dira, beraz gelan hizkuntza desberdin anitz daude. 21 ume hauetatik bat bada aurten EAera etorri dena eta aurretiaz eskolatu gabe egon dena; besteek familia etorkina izan arren bertan jaiotakoak dira.

Irun-Toki Alai Eskola Publikoa

Toki Alai ikastetxe publikoa, Dunboa ikastetxea bezala, Irun udalerrian kokatuta dagoen ikastetxe bat da. Iruneko ikastetxe handienetako bat da, izan ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako eskaintza izateaz gain, Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ere eskaintzen dute. Hau kudeatzeko bi zuzendaritza talde dituzte, bata Haur eta Lehen Hezkuntzaz arduratzen dena eta bestea Bigarren Hezkuntzaz arduratzen dena.

Haur eta Lehen Hezkuntza 700 ikaslek osatzen dute, horietatik 264 Haur Hezkuntzan eta 436 Lehen Hezkuntzan daude. Ikasle guzti hauek antolatzeko, maila bakoitzean 3 lerro daude, hau da, kurtso bakoitzeko hiru gela daude, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Haur Hezkuntzan ere.

Lehen Hezkuntzako klaustroa 36 irakaslez osatuta dago, 18 tutorez eta 18 espezialistaz hain zuzen ere. Espezialisten barruan, musikako hiru irakasle, ingelesko lau, gorputz hezkuntzako bi, hizkuntza indartzeko bi, logopeda bat, Heziketa Bereziko sei, laguntza-eredu bat eta lau Heziketa Bereziko laguntzaile daude.

Lau eraikin nagusi ditu saioak emateko, Haur Hezkuntzako bi, Lehen Hezkuntzako bat eta Bigarren Hezkuntzako beste bat. Eraikin guztiak sakabanatuak daude Irundik zehar, izan ere, ikastetxea sortu zenean eraikin bakarra behar zuten saioak emateko, baina, urteak aurrera joan ahala ikasle berri gehiago zituzten, beraz, espazio gehiago behar zuten. Gaur egun ere, ikastetxea etengabe hazten ari da, urtero ikasle berriak dituztelako, eta zuzendariak esan didanez, aurki Lehen Hezkuntzako ikastetxean erreforma bat egin beharko dute gelak handiagoak egiteko.

Eraikin hauetatik gain, beste instalakuntza batzuk ere dauzka irakaskuntza ikaskuntza prozesua osatuagoa izateko, hala nola, liburutegia, gimnasio bat, jangela, patio handi bat, frontoi bat, polikiroldegiko bi pista eta musika gela. Eskola garraioa eta eskola kirola zerbitzuak ere eskaintzen ditu zentroak.

Toki Alai ikastetxeak, Iruneko beste ikastetxeen antzera, D ereduan oinarrituriko ikaskuntza eskaintzen du. Harrera plana aztertuz, nahiko osaturik daukate, zuzendariak esan

bezala, “zehaztuta dugu ze nolako pausuak emango ditugun ikaslea eskolara etorriko dela jakin bezain pronto. (Eskolaratze batzordetik bidalitako kasuetan) Eta hizkuntza indartzeko irakaslearen laguntzari esker euskara ikasteko lehen urratsak ematen dituzte, eta horrekin batera beraien eskola ibilbidea ahalik eta arrakastatsuena izan dadin beharrezko pausuak jorratzen dira”. Honetaz gain, ikasle enbaxadoreen programa ere erabiltzen dute ikasle etorri bat daukatenean, lehenengo egunetan laguntzeko eta dauzkaten zalantza guztiak argitzeko. Beste alde batetik, ume etorkinen ama hizkuntzari gainontzeko ikastetxetan baino garrantzia eta erabilpen gehiago ematen diote, izan ere, ikasle enbaxadoreak ama hizkuntza bera daukaten ikasleak izaten saiatzen dira hasieratik bere hizkuntza erabiltzeko beldurra izan ez dezan, guraso bileretan ere haien ama hizkuntzan hitz egiteko aukera daukate, sarrera eta irteera agurretan ikasle bakoitzak bere ama hizkuntza erabil dezake eta irakasle eta ikaslearen arteko elkarrizketetan umearen ama hizkuntzaren hitz batzuk ere erabiltzen dira esanahien ulermenerako.

Nik aztertutako gela 5. Mailako gela bat izan da, A gela hain zuzen ere. Gela honetan 24 ikasle daude, zeinetatik 4 diren ikasle etorkinak edota familia etorkinen seme alabak. Ikasle hauek jatorri ukraniarra, marokoarra, mexikarra eta nigeriarra daukate. Ukraniako ikaslea ezik gainontzeko guztiak txikitatik Toki Alai ikastetxean ikasi dute; ikasle ukraniarra aurreko urtean iritsi zen ikastetxera.

3.2. Ikerketa garatzeko teknikak

Behin ikastetxe eta aztertutako gelatako testuingurua azalduta, haur etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera aztertzeko erabilitako teknikak azalduko ditut. Hiru teknika desberdin erabili ditut: elkarrizketa, behaketa eta ikastetxeko dokumentuen azterketa.

Lehenengo teknika galdetegi bat izan da, eskolako zuzendariari (ikus 1.go eranskina) eta gelako irakasleari (ikus 2. Eranskina) egin diedana. Zuzendariari eskolaren inguruko galderak egin dizkiot, bera delako eskolaren ezagutza orokorra duena eta ikasle guztiei buruzko informazioa daukana. Honek, eskolako testuingurua eta bertan dauzkaten plan eta proiektuak ezagutzen lagundu dit. Irakasleari, aldiz, gelaren inguruko galderak egin dizkiot gela barruko errealitatea zein den jakiteko. Izan ere, saio batzuk ikusi eta aztertzeko baimena eman arren, ez dut denbora nahikoa izan ondorio garbiak ateratzeko eta elkarrizketak hau ahalbidetu dit. Galderak prestatzeko momentuan, Coelhoren (1998) liburuan oinarritu naiz.

Datuak biltzeko erabilitako bigarren teknika eskolako dokumentuen azterketa izan da. Eskola bakoitzean etorkinei harrera egiteko daukaten plana, Harrera Plana, eta eskolako proiektu desberdinak aztertu ditut.

Azkenik, erabili dudan hirugarren teknika behaketa zerrenda (ikus 3. Eranskina) izan da. Behaketa zerrendaren ordezkari kontrol zerrenda bat egiteko asmoa nuen, baina, ikastetxe guztietan kontrol zerrenda bat egiteko denborarik ez nuen aipatutako zerrenda hau egitea bururatu zait. Behaketa zerrenda hau gelako irakaslearekin bete dut. Hiru zatitan banatu dut zerrenda; Lehenengo zatian ikasle etorkinen ama hizkuntzak eskolan eta gelan daukan presentzia aztertu dut; bigarren zatian, ikasleen ama hizkuntzari gelan ematen zaion erabilera aztertu dut; eta hirugarrenean, gurasoek eta ikastetxearen arteko harremana aztertu dut. Behaketa zerrenda hau egiteko, galdetegian bezala, Coelhoren (1998) liburuan oinarritu naiz.

Behin datu guztiak bildu izatean, emaitzak eta hauetan oinarritutako ondorioak atera ditut. Hau da, ezagutu dut Bidasoako zonaldean zelako trataera ematen zaion ume etorkinen ama hizkuntzari eta honetan oinarriturik ondorioak atera ditut. Emaitzak eta ondorioak hurrengo puntuetan ikusgarri daude.

4. EMAITZAK

Behin ikastetxe guztietako ikerketa amaituta izatean eta beharrezko datuak jasotzean lortu ditudan emaitzak azalduko ditut. Puntu honetan, Nafarroa idaztean Bortziriak, Malerreka eta Baztanen aztertu ditudan ikastetxeei erreferentzia eginez idatziko dut eta Gipuzkoa edo Irun idaztean bertan aztertutako ikastetxeei erreferentzia eginez idatziko dut.

Lehenengo emaitzarik nabarmenena, etorkinak bizitzeko lekua bilatzeko momentuan, Gipuzkoa eta Nafarroaren artean dagoen aldea da, beti ere, Bidasoa zonaldea aztertuz. Hau da, Bidasoa bailara osoan, etorkinen ehuneko handia Irunera joaten dira bizitzera, eta beste ehuneko txiki bat, Bortziri, Malerreka eta Baztango herrietan banatzen dira. Izan ere, Gipuzkoa mailan, Irun da bigarren udalerrria etorkin gehien hartzen dituen Donostia ondotik (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2018); Nafarroan aldiz etorkinek joera daukate hegoaldera joateko iparraldera joan beharrean, izan ere, Castejon, Alesbes, Larraga, Funes, Milagro eta Cintruenigo dira Nafarroa osoan etorkin ehuneko handien dituzten herriak (Nafar Gobernuak, 2014)

Bigarren emaitza, Iruneko ikastetxeetako harrera planak Nafarroa aldeko ikastetxetako planak baino garatuago daudela da. Izan ere, Iruneko ikastetxetan urtero ikasle

etorkin gehiago matrikulatzen dira, horietatik batzuk, gainera, kurtso hasia dagoenean iristen dira; horregatik Irunen urte askoz harrera plana garatzen joan dira, gaur egun plan garatu bat izan arte; adibidez, ikasle enbaxadoreen izendapena, ama hizkuntza bereko adin desberdinetako ikasleen arteko elkarlana, gurasoekin lehenengo elkarrizketa nola egin, hots, zein erregistro erabili, zenbat informazio eman, zein hizkuntza erabili eta abar. Guzti hau haien harrera planean zehaturik daukate. Nafarroan aldiz, oso etorkin gutxi izan dituzte betidanik, eta beti gaztelaniaz hitz egiten zuten iristen zirenak, horregatik ikastetxe guztietan gaztelaniaz soilik hitz egiten duten ikasleei bideratutako materiala prestatua daukate.

Hirugarrena, aztertutako ikastetxe guztiak euskararen irakaskuntzan oinarritzen direla da, hau da, D eredua soilik eskaintzen dute. Honetaz gain, Lesaka eta Berako ikastetxetan soilik gaztelania eta ingelesaz gain, frantsesa ikasteko aukera ere eskaintzen dute.

Laugarrena, ikastetxe guztietan bai ikastetxeko eta bai gelako hizkuntza paisaian euskara eta gaztelania ama hizkuntzak soilik agertzen direla da; kasuren batean, ingelera ere ikus daiteke baina oso gutxitan. Gainera, gelako liburutegian ere liburu guztiak euskaraz edo gaztelaniaz idatzirik daude. Lesaka eta Berako ikasgeletan soilik ingelesez idatziriko libururen bat aurkitu dut. Ikastetxeko liburutegia aztertuz gero, ikastetxe guztietan bai ingelera eta bai frantsesez idatzitako liburuak aurki daitezke; Dunboa ikastetxean, gainera, arabiarrez idatzitako libururen bat ere aurki daiteke.

Bosgarrena, ikastetxe guztietan eskolako ohar guztiak euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen dituztela da. Irakasleak ahal den modu ulergarrienean idazten saiatzen da, gurasoak arazorik ez izateko irakurtzeko garaian. Hala ere, gurasoren batek arazoak baldin baditu gelara joateko aukera dauka irakaslearekin zalantzak argitzeko.

Seigarren emaitza, bai Nafarroako eta bai Iruneko ikastetxeetan sarrera irteera agurrak ikasleak gogoko duten hizkuntzan egiteko askatasuna daukatela da, nahiz eta euskaraz egiteko animatzen zaien. Eguneroko errutinak ere euskaraz soilik egiten dira, ikasle bakoitzaren hizkuntza mailara egokituz.

Zazpigarrena, eskolako hizkuntza ikasteko momentuan ume etorkinen ama hizkuntzan ez direla oinarritzen da, soilik gaztelania aintzat hartzen dute. Nafarroako ikastetxeetan, prestatutako materiala soilik ama hizkuntza gaztelania duten ikasleentzat daukate materiala prestatuak. Gainera, errefortzua emateko ikastetxeko bertze tutore batek ematen dio. Iruneko ikastetxeetan aldiz, HIPIak dauzkate errefortzuak emateko.

Zortzigarrena, ikastetxe guztietan banakako bileretan beharrezkoa denean telefonoz itzulpen zerbitzua daukatela da.

Bederatzigarrena, ikastetxe guztietan etorkinen ama hizkuntza oso garrantzitsua dela esaten dute baina hau ez dute inoiz erabiltzen lan egiteko, soilik esanahiren bat azaltzeko erabiltzen da. Irunen eta Elizondon kultura asteak antolatzen dituzte eta orduan bakarrik bihurtzen dira garrantzitsu hizkuntza hauek.

Hamargarrena, familiei ez zaie laguntzarik eskatzen ikastetxean ikusgai jarritako materialak haien ama hizkuntzan idazteko momentuan, ez Nafarroako ikastetxetan ez eta Irunekoetan ere.

Hamaikagarrena, Nafarroako ikastetxeetako dokumentuetan, ez zaio ume etorkinen ama hizkuntzari aipamenik egiten, soilik eskolako lehen eta bigarren hizkuntza (euskara eta gaztelania) aipatzen dira. Gipuzkoako ikastetxeetan, aldiz, bai aipatzen dira, baina, soilik harrera planean hasierako elkarrizketa zein hizkuntzatan egin finkatzeko eta guraso bileretan zein hizkuntza erabili zehazteko.

Hamabigarrena, irakasle eta zuzendari guztiek ume etorkinen ama hizkuntza lantzea oso garrantzitsua dela esaten dute, baina, inork ere ez daki honi nolako tratamendua eman.

5. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, azaldu nahi dut lan hau egiteko ikastetxe ezberdinetako gela oro aztertu ditudala, eta horregatik ez dudala denborarik izan gela eta ikastetxe guztietan ikerketa sakon bat egiteko. Era berean, ikastetxe bakoitzaren errealitatea oso desberdinak direnez, ateratako ondorioak bi multzotan banatu ditut, batzuk ikastetxe bakoitzean oinarrituta eta besteak ikuspegi orokor batetik aterata.

Ikastetxe bakoitzaren egoera eta esku-hartzea zein den jakinda Lesakako eta Berako ikastetxeetan atera ditudan ondorioak azalduko dizkizuet. Bertako hizkuntz paisaia oso pobrea da, izan ere, nahiz eta irudi, esaldi kartel eta abar asko izan, hauek euskaraz eta gaztelaniaz soilik idatzita daude. Ikastetxean ikasle gehienek ama hizkuntza gaztelania eta euskara dute, baina, gutxiengo batek beste ama hizkuntza batzuk ditu, hots, portugesa, errumaniera, moldavoa, eslobakiera eta arabiera. Halaber, bai Harrera Plana eta bai Hizkuntza Plana garatzeke dauzkate, haiek aipatu bezala, orain arte bi hauen beharrik izan ez dutenez ez baitituzte guztiz garatuta. Eskolako oharrak eta guraso bilerei dagokionez euskara eta gaztelania ama hizkuntzetan egiten dituzte, gurasoek hizkuntza hauek ulertzen dituztelako eta irakasleek gurasoen ama hizkuntzatan hitz egiten ez dakitelako. Hau dena

jakinda, Lesaka eta Berako ikastetxetan etorkinen ama hizkuntzari ematen dioten trataeran hobetzeko puntuak dituztela ondoriozta daiteke, nahiz eta egiten dutena guztiz okerra ez izan.

Aurreko emaitzak aztertuta Baztan ikastolak asko hobetu behar du ume etorkinen hizkuntzen trataeran. Izan ere, bertako idazkariak esan bezala, hau ikastola bat da eta euskararen irakaskuntzan oinarritzen gara, eta honat ikastera etortzen diren guztiak hau egitera datoz. Beraz, material oso gutxi daukate etorkinen ama hizkuntzekin lan egiteko. Gainera, haiek esan bezala, inoiz ez dute euskaraz hitz egiten ez dakien ikaslerik izan, beraz, inoiz ez dute materialik izan behar ume bati euskara oinarritik irakasten hasteko. Hizkuntza paisaian euskara ama hizkuntza soilik ikusten da, eta bai eskolako oharretan bai guraso bileretan ere euskara eta gaztelania ama hizkuntzak erabiltzen dituzte. Ikasturte guztian ospatzen duten kultura astean soilik ematen diote garrantzia ume etorkinen ama hizkuntzari, beraien hizkuntzako hitzen bat, agurrak eta abar ikasiz. Harrera planari dagokionez duela urte batzuk egindako bat berritzen ari dira ideia berriak txertatuz. Beraz, aurretik aipatu bezala, ume etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera oso eskasa da, eskolako hizkuntza ofiziala ez den erabiltzen den bakarra gaztelania delako, gainontzeko guztiak alde batera utziz.

Irakurri dugunez Nafarroa aldeko ikastetxeetan nahiko garrantzi gutxi ematen diote ume etorkinen ama hizkuntzari, baina Gipuzkoako aldean egoera hau guztiz aldatzen da. Izan ere, Irunen eskoletan etorkin kopuru handiago daukatenez, ikastetxetako planak garatu behar izan dituzte egoera berri honetara egokitzeko. Egoera berria esaten dut etorkinak aspalditik datozen arren, azken urteotan bereziki areagotu delako etorkinen etorrera gure gizarte eta ikastetxetara.

Gipuzkoan aztertutako ikastetxeak, Irunen zehazki, Dunboa eta Toki Alai eskola publikoak izan dira. Dunboa ikastetxeak modu nahiko egokian kudeatzen du ume etorkinen ama hizkuntza orain arte ikusitako ikastetxeekin alderatuta. Harrera plana eta hizkuntza plana daukate ikastetxean etorkinen etorrera horri erantzun egoki bat emateko. Haiek esan bezala, beraien egunerokoan ohiturik daude etorkinekin lan egitera. Hizkuntza errefortzua emateko ere HIPI figura bat daukate. Hala ere, beste ikastetxe batzuetan bezala, hizkuntz paisaian euskara da gehien ikusten den ama hizkuntza, eta honi jarraituz gaztelania. Gainontzeko hizkuntza guztiak ez dira inon ikusten, liburutegian soilik, arabiarrez idatziriko liburu bat baitago. Aztertutako gelako irakaslea aldiz, bere kabuz, bai saiatzen da haien ama hizkuntzari garrantzi gehiago ematen, batez ere, ikaslea etorri berria denean; horretarako, gurasoekin kontaktuan jartzen da eta hizkuntza fitxa batzuk prestatzen ditu euskara eta ikaslearen ama hizkuntzan. Hau dena jakinda, ondoriozta daiteke, Dunboa ikastetxea ume

etorkinen ama hizkuntzari trataera egoki bat emateko bidean dagoela, baina, oraindik puntu batzuk jorratzeke geratzen zaizkiola.

Aztertutako azken ikastetxea Toki Alai eskola publikoa izan da. Aztertutako ikastetxe guztietatik hau da ume etorkinen ama hizkuntzari trataera egokiena ematen dion ikastetxea. Harrera plana etengabe berritzen ari dira, adituek esaten dituzten ideia berriekin, eta praktiketako ikasleak eramaten dizkieten ideia berriekin. Hizkuntza proiektua ere guztiz osaturik daukate eta Hezkuntza sailetik proiektua onartzea bakarrik falta zaie. Bestalde hizkuntz paisaia dela eta, euskara eta gaztelania ama hizkuntzak dira gehien ikuste direnak, baina, proiektu bat martxan jarri dute zeinetan eskolako sarreran dagoen monitore batean, esaldi arrunt batzuk eskolako hizkuntza guztietan agertzea helburu duten. Hala ere, gelako hizkuntz paisaian euskara soilik ikus daiteke, eta gelako liburutegian euskaraz eta gaztelaniaz idatziriko ipuinak bakarrik aurki daitezke. Honetaz gain, ama hizkuntza bera daukaten adin desberdinetako ikasleen arteko laguntza sustatzen da ikastetxean, batez ere, ikaslea berria denean, laguntzailea ikasle enbaxadore bihurtuz. Ikasle hauek itzultzaile eta komunikazioa errazteko bideratzaile bihurtzen dira denbora batez. Halaber, gelan jolasak eta hizkuntza ezberdinetan irakurketak egiten dituzte umeen jatorrizko hizkuntzak balioesteko. Hau guztia jakinda, Toki Alai ikastetxeak ikasle etorkinen ama hizkuntzari ematen dion trataera nahiko egokia dela ondorioztatu daiteke, aztertutako ikastetxe guztietatik, modu egokienean kudeatzen baititu ikasleen jatorrizko hizkuntzak. Dena dela, hobetzeko proposamen batzuk egin dizkiet hurrengo puntuan jakingo ditugunak.

Irakurritako ondorio hauek ikastetxe bakoitzetik atera ditudanak izan dira, eta orain ikuspegi orokor batetik atera dituztenak azalduko ditut.

Ikuspegi orokor batetik atera dudana lehenengo ondorio nabarmenena etorkinen bizilekuaren banaketa izan da. Izan ere, etorkinen gehiengoa Bidasoa bailara guztian zehar, Irun udalerrian bizi da eta gutxi batzuk beste herri guztietan zehar banaturik daude.

Hitz egin dudana irakasle eta zuzendari guztiek bat egiten dute azken urteotan etorkinen etorrera eta eskolatzea areagotu egin dela esatean. Irunen bereziki nabaritu dute etorrera hau, baina, honetaz gain, Gasteizen gertatzen ari den bezala, fenomeno arraro bat gertatzen ari da; ikasle etorkinek hezkuntza publikoa aukeratzen dutenez, bertakoak diren gurasoak haien seme alabak ikastetxe horietatik atera eta beste batzuetara eramaten dituzte, ikastetxe publikoetan gero eta ume etorkin gehiago sartuz. Fenomeno honi Guettizazio fenomeno deritzo, eta Gasteizen bezala Irunen ere gertatzen ari da. Dunboa ikastetxean ikasleen %70a etorkinak dira eta zuzendariak esan zidanaren arabera hurrengo urterako ehunekoa handiagoa izatea espero dute.

Honetaz gain, oso interesgarria iruditu zait, irakasle guztiek esaten dutela umeen ama hizkuntza oso garrantzitsua dela umeen irakaskuntza prozesuan, baina, Dunboako irakasleaz gain, inork ere ez diola behar duen garrantzia eta erabilera ematen. Honekin batera, gaur egungo irakasleek gai honen inguruan daukaten formakuntza maila oso baxua dela ohartu naiz, izan ere, irakasle askok ez zekiten zein nolako erabilera eman ume etorkinen ama hizkuntzari. Denek zekiten oso garrantzitsua dela ama hizkuntzaren erabilera haien heziketan baina ez dakite nolako erabilera eman edota zein momentuetan erabiltzea den komenigarria.

6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Dakizueenez lan honek Bidasoa eremuko ikastetxeek ume etorkinen ama hizkuntzari ematen dioten trataera aztertzea eta etorkizunerako hobetzeko proposamenak ematea du helburu.

Helburu hau lortzeko izan ditudan mugak ere aurretik aipatu ditut, hots, ikastetxe gutxi prest egon direla parte hartzeko eta ikertutako ikastetxeetan ikertzeko denbora gutxi izan dudala. Hala ere, uste dut erabilgarria izan daitekeela etorkizunean norbaitek ikerketa bera sakonago eta ikastetxe gehiagorekin egin nahi badu oinarri moduan hartzeko. Hau gertatzen bada, lagintzat ikastetxe gehiago ikertzea eta ikerketa sakonago bat egitea gomendatzen diot, izan ere, nik Covid-19 dela medio, ikastetxe batzuetara joan gabe geratu naiz, azkenean ikastetxe gutxi batzuekin lan eginez.

Honetaz gain, nik ikertu dudana gelan eta ikastetxean ume etorkinen ama hizkuntzari ematen zaion trataera izan da, baina, ikerkuntza hau beste ildo batzuetatik jorra daiteke, hala nola zein metodologia sortu diren gai honi erantzuna emateko, profesionalek zelako formakuntza jasotzen duten gai honen inguruan eta abar. Behin izan ditudan mugak azalduta ikastetxeei hobetzeko proposamenak azalduko ditut.

Lehenengo hobetzeko proposamena hizkuntz paisaiari buruzkoa da. Ikastetxe guztiek asko hobetu behar dute hizkuntza paisaia, izan ere, denetan euskara zen gailentzen zen hizkuntza eta honen ondotik gaztelania eta kasu batzuetan ingelera. Hizkuntza paisaiak eragin zuzena dauka ikaslearen eskolako hizkuntzaz jabetzeko ikaskuntzarekin. Izan ere, Cumminsek (2001) azaltzen duen moduan, haur baten hizkuntza onartzen ez dugunean haurra bera onartzen ez dugula esaten ari gara. Haur honi helarazten diogun mezua, inplizituki zein esplizituki, “Zure hizkuntzaz eta kulturaz ahaztu eskola barruan” bada, haurrek ere haien nortasunaren zati handi bat ahazten dute, haien identitatea. Bazterketa hori sentitzean haien parte hartze aktiboa gutxiagotu eta konfiantza murriztu egiten dira gelan

egiten ari direnarekiko. Horregatik, nire lehenengo proposamena bai gelako bai eskolako hizkuntz paisaia eskolako hizkuntza guztietan agertzea da ikasleak haien identitatea ez galtzeko eta gurasoak ere haien kultura zein hizkuntza errespetatzen direla ikusteko. Hona hemen adibide batzuk (Coelho, 1998):

- Grafiko edo diagrama bat jarri eskolako sarrera nagusian eskolako ikasleen hizkuntza- eta kultura-jatorriak agertuz.
- Eskola inguruko seinale eta oharrak eskolako kideen hizkuntzetan jarri, hala nola, Ongi etorri seinaleren bat edo norabidea adierazteko seinaleak. Hauek gurasoen laguntza baliatuz egin daitezke, modu honetan ere, gurasoen parte hartzea sustatuz.
- Liburutegian hizkuntza guztietan idatziriko liburuak izan ikasle guztiek haien ama hizkuntzan irakurri ahal izateko.

Ikasleen identitatea aintzat hartuta, beste jarduera simple bat eta oso erraza dena, sarrera eta irteera agurrak ikasleak nahi duten hizkuntzan egitea da. Jarduera honekin ohartzen dira berdin duela zein den haien ama hizkuntza denak onartzen direlako eta haien hizkuntza onartzean haiek ere onartuak sentituko dira.

Beste hobekuntzarako proposamen bat ikasle enbaxadoreen programa martxan jartzea da. Toki Alai ikastetxean erabiltzen dituzte ikasle enbaxadoreak etorri berriei harrera eta lehenengo egunetan laguntzeko. Gainera, enbaxadoreak tratu hurbilagoa izateko ama hizkuntza berbera daukan ikasle bat izatea saiatzten dira etorri berriaren ulertzen duen hizkuntza batean mintzatu ahal izateko. Haiek esandakoaren arabera oso emaitza onak ematen dizkien programa bat da, ikasle etorri berriak, guztiz ezezaguna den leku batean, lagunduko dion pertsona bat daukala sentitzen duelako.

Honekin jarraituz hona hemen gomendio batzuk programa hau eraginkorra izan dadin. Hobe da adiskide hitz ez erabiltzea, modu honetan derrigortzen ari diegulako adiskide izatera eta litekeena da hau ez gertatzea. Laguntasuna sortuko balitz hobe, onura erantsi bat bailitzateke, baina hau ez da programaren helburua (Coelho, 1998).

Prestatu ikasle enbaxadoreak haien rolerako. Hartu hizpidetzat nola senti daitekeen iritsi berri bat eskolan lehen egunetan; enbaxadoreetako batzuek, beren esperientziatik baliatuz, ikaskideei kontatzen ahal dizkiete beren bizipenak. Honetaz gain, enbaxadoreek hizpide ere har lezakete zer nahi luketen haiek enbaxadore batek beren alde egitea egoera horretan baleude, eta hortik eginkizun zerrenda bat osatu, hala nola, ikasgelako ohiturak azaltzea eta etorri berrien ondoan esertzea lehen bi asteetan (Coelho, 1998).

Programa honen azken gomendioa enbaxadoreei aitoren berezia egitea da. Horretarako badira zenbait aukera: gurasoei gutun bat idaztea (dagokion hizkuntzan) haurra zein lagungarria den goretsiz, ikaslearen izena jartzea ageriko zerrenda batean leku nabarmenean, bileretan haren lana aitortzea eta abar.

Ikusi dudan beste arazo bat, laguntza behar duten ikasleak gelatik kanpo pasatzen duten denbora izan da. Normalean ikasle hauek iritsi berriak edo hizkuntzarekin arazoak izaten dituzten ikasleak izaten dira. Ikasle hauek astean ordu asko pasatzen dituzte gelatik kanpo, hizkuntzan eta beste ikasgai batzuetan ematen zaizkien errefortzuengatik. Halaber, ikaslea iritsi berria denean ordu gehiago ematen ditu gelatik kanpo, hizkuntza ikasteko laguntza gehiago ematen diotelako. Hainbeste ordu ohiko gelatik kanpo igarotzea ez da eraginkorra ez hizkuntzaren ikaskuntzarako ez eta ikaslearen heziketarako. Honi erantzun bat emateko, Xavier Besalú eta Ignasi Vilak (2007) proposatzen dituzten gela irekiak erabiltzea gomendatzen diet.

Gela irekiak ikastetxeek daukaten errefortzu gelen antzeko funtzioa daukate. Ikastetxeko hizkuntza ezagutzen ez duen ikasle berri bat iristen denean, hau zuzenean ohiko gelara sartzen da bertan hizkuntza ikasten hasteko. Ikasle hau egunero errefortzu gelara joaten da ordu bat eta hiru ordu arteko denbora epetan. Bertan oinarrizko hizkuntza gaitasunak ikasten ditu, gero, ohiko gelan garatzen dituenak. Beraz, gela hauek ez dira ulertu behar hizkuntza ikasteko gelak bezala, hau gertatuko balitz emaitza kontrakoa izango litzatekeelako. Errefortzu gelan elkarrizketa bat eduki ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak ikasten ditu, gero ohiko gelan garatzen dituenak ikasleekin harremandu eta aktiboki parte hartu ahal izateko.

Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailak egin zuen ikerketa batean gela hauek hizkuntza ikasteko eraginkorrak direla ondorioztatu zen. Izan ere, Katalunian denbora gutxiago bizitzen eta errefortzu gelan ordu gutxiago eman zituen ikasleak Katalunian denbora gehiago baina errefortzu gelan ordu gehiago eman zituen ikasleak baino hobeto menperatzen zuen katalana. Arrazoi honengatik ez da gela hau ikasleak ikastetxeko hizkuntza ikasteko erabiliko duen gela bezala hartu behar, horrela egin ezkerre emaitza kontrakoa izango delako.

Laburtuz, errefortzu gela hauek ikasleak ikastetxeko hizkuntza berria azkarrago ikasten lagunduko dion gela bezala ulertu behar da, ohiko gelako ikaskuntzan lagunduko diona. Aldiz, gela hauek hizkuntza ikasteko gela bakarra bezala hartzen badira, zailduko dute bai hizkuntzaren ikaskuntza bai eta eskolan integratzea ere.

Orain arteko gomendio hauek nahiko orokorrak izan dira, hau da, ikastetxe guztietara bideratuak izan dira, baina hurrengo Nafarroako ikastetxeetara bideraturik doa, izan ere, ikastetxe hauek dira harrera planean etorkinei buruzko aipamen gutxi dauzkatenak. Ikastetxe guztietako zuzendari zein irakaslekin hitz egitean, denek onartzen zuten ikasle etorkinen ama hizkuntza oso garrantzitsua dela, baina, Nafarroako ikastetxeetako harrera plan eta beste proiektuetan, ez da aipamenik egiten ume etorkinen ama hizkuntzari buruz. Gainera, ikasle guztientzako harrera plan berbera prestatuak daukate, norbanakoaren hizkuntzari garrantzirik eman gabe. Horregatik, harrera plan bat garatzea eta ikasle etorkinei bideratutako harrera plan bat egitea gomendatzen diet. Izan ere, hau egin gabe izanik ikastetxeko hizkuntza ez dakien ikasle bat etortzen bada, litekeena da ohiko martxa hankaz gora jartzea eta irakasleak aztoratzea egoera berri horren aurrean. Ikasleak eta gurasoak hau ikustean izutu egingo dira hasiera-hasieratik eta aurrerantzean alferrik izango da ahalegintzea gurasoak parte har dezaten. Aldiz, lehen elkarrizketa positiboa izateak areagotu egiten du gurasoak eskolarekin harremanetan jarraitzeko eta haurren heziketan parte hartzeko probabilitatea (Coelho, 1998).

Honetaz gain, iritsi berriak jasotzen duen lehen inpresioa oso garrantzitsua da, lehen egunetan ikasleak bere iritzia osatuko baitu eskolaz eta imajinatuko du nola moldatuko den han. Hona hemen gomendio batzuk (Coelho, 1998):

- Prozedura bat ezarri ikasle eta gurasoei ongietorria emateko iristen diren unean. Ziurtatu eskolako bulegariak, prestatuta daudela ikasle berriak abegiz hartzeko eta badakitela prozedura zein den.
- Harreraz arduratuko den taldea izendatu.
- Etxeko hizkuntza erabili. Hau ezin bada bete, interprete baten laguntzaz baliatu.
- Nahiko denbora hartu harrerako elkarrizketarako. Bi aldiz denbora gehiago behar izaten da interprete baten bidez komunikatzeko. Gainera kontzeptu batzuk ere azaldu behar izaten dira gurasoek hauen esanahia argi eta garbi uler dezaten.
- Ebaluatu ikaslearen hizkuntza-gaitasuna, oinarri akademikoa eta beharrak, informazio esanguratsua eskatuz gurasoei edo ikasleari, eta ebaluazio-tresna eta –prozedura egokiak erabiliz.
- Oinarrizko informazioa eman eskola egunaren ordutegiaz eta antolamenduaz, ikasleak eskolara eraman behar duenez eta oporrez. Garrantzitsua da lehen elkarrizketan familia informazio berriz ez itotzea; aski da harremanak bideratzea, ondorengo aste eta hilabeteetan orientazioak aurrera jarrai dezan.

- Haien hizkuntzan dagoen liburuxka edo triptiko bat eman. Bertan oinarrizko informazioa eman eskolako programaz, eskola-egunaren eta ikasturtearen antolamenduaz, jarduera eta gertaera berezietan eta gurasoei eskaturiko rolaz. Honetaz gain, informazio pertsonalizatua eman daiteke: ikaslearen tutorearen izen-deiturak, zuzendaritzaren izen-deiturak, eskolako telefono-zenbakia, eta zer egin behar den ikaslea eskolara ez datorrenean.
- Adierazi lagundu egingo zaiela lehen hizkuntza gordetzen eta animatu gurasoak etxean lehen hizkuntza erabiltzera, haurraren hizkuntza-garapenari laguntzeko.

Azkenik, eskola guztietan ikusi dudana gabezi bat irakasleen gai honekiko formakuntza eza izan da. Izan ere, haiekin izan ditudan elkarrizketetan, gehiengoak ez zekien nola aurre egin edo zer egin ikastetxeko hizkuntza ezagutzen ez duen ikasle bat etortzean ez eta honen ama hizkuntzari nolako trataera eman. Hau irakasleen formakuntzan behar bezala lantzen ez delako, eta behar duen garrantzia ematen ez zaiolako gertatzen da. Horregatik pentsatzen dut unibertsitateak eta hezkuntza administrazioak hau landu beharko luketela, izan ere, formakuntza da egoera hobetzeko lehen urratsa.

7. BIBLIOGRAFIA

Barquin, A. (2009). *Etorkinen seme alabak eskolan. Zer aldatzen ari da?* Hik Hasi 143, 29-32.

Besalu, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación*. Madrid: Catarata.

Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Vitoria-Gasteiz: UPV / EHU eta Arabako Foru Aldundia.

Coelho, E. (2016). *Eskola kulturaliztunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo-Bilbao: UPV/EHU.

Cummins, J. (2001). *La lengua materna de los niños bilingües. ¿por qué es importante para la educación?* Sprogforum, 7 (19), 15-20.

Eusko Jaurlaritzak (2012). *Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015*. Hemendik eskuratua: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120009e_Pub_EJ_etorkin_plana_e.pdf

Eusko Jaurlaritza (2018). *Haur Hezkuntzako, Lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleen eboluzioa 2012-2013... 2017-2018*. Hemendik eskuratua:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/matrikula-bilakaera-irudiak/web01-a2hestat/eu/>

Gipuzkoako Foru Aldundia. *Immigrazioaren joera nagusiak*. Hemendik eskuratua:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/bizikidetza/gipuzkoakohizkuntzak/immigrazioaren-joera-nagusiak>

Immigrazioaren Euskal Behatokia (2020). *Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn eremu geografiko eta sexuaren arabera 2020. Urtea*. Hemendik eskuratua:

https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020prov/CAE_area_geografica_sex0_2020eus.pdf

Ministerio de Educación y Formación Profesional (2020). *Enseñanzas no universitarias. Alumnado matriculado. Curso 2018-2019. Resultados detallados*. Hemendik eskuratua:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/estadisticas/no-universitaria/alumnado/matriculado/2018-2019-rd.html>

Nafarroako Gobernua (2014). *Azterlan baten arabera, bertako biztanleen eta etorkinen arteko harremanean bizikidetza da nagusi eta gatazka gutxi daude*. Hemendik eskuratua:

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2014/06/18/diagnostico+situacion+personas+inmigrantes+plan+convivencia.htm

Nafarroako gobernua (2018). *Enseñanzas no universitarias: matrícula*. Hemendik eskuratua:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Estadistica/Clasificacion+por+Departamentos/?depart=5&plan=5&pr=-1&np=1

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

ZUZENDARIARI EGINDAKO GALDERAK

Eskolari buruzko datuak

1. Zenbat ume daude eskolan? Horietatik zenbat dira etorkinak edota etorkinen seme-alabak? Zein herrialdeetakoak? Zein da haien jatorrizko hizkuntza?

2. Noiztik datoz etorkinak eskola honetara?
3. Zer egin du eskolak egoera horri erantzuteko?
4. Egoera berri horri erantzuteko laguntzarik jaso duzue Administrazioaren aldetik?
5. Badago Hizkuntza Planik eskolan?

Ikasleen jatorrizko hizkuntzen trataera eskolan

6. Zelako garrantzia ematen dio eskolak ikasleen jatorrizko hizkuntzei?
7. Eskura al dago guztientzat ikastetxeari buruzko informazioa, jatorrizko hizkuntza bestelakoa denean?
8. Nola tratatzen ditu eskolak ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak?
9. Eskolak ba al du ikasleen kultur testuinguru bera eta hizkuntza bera duen norbait eurei irakasteko eta laguntzeko?

Familia eta eskolaren arteko harremana

10. Zergatik erabakitzen dute, oro har, familia etorkinek haien seme-alabak D ereduan izen-ematea?
11. Hizkuntza paisaia ez da ikasleen ama hizkuntza askotan agertzen, baloratu duzue inoiz familiei laguntza eskatzea horrelako informazioa haien hizkuntzetara itzultzeko?
12. Nola bideratzen da familia eta irakasleen arteko komunikazioa (banakako bileretan eta bilera orokorretan) familien hizkuntza bestelakoa denean?

ZUZENDARIARI EGINDAKO GALDETEGIA ADIBIDEA - Toki Alai Ikastetxea

1. Zenbat ume daude eskolan? Eskolan 700 ikasle daude. Datuak aldakorrak dira. Izan ere, azken boladan astero edo bi astean behin ikasle berri bat iristen baizitzaigun.

Horietatik zenbat dira etorkinak edota etorkinen seme-alabak? Eskolaratze batzordetik bidalitakoak 40 bat izango dugu eta etorkinen seme-labak direnak gehiago. Denera agian 100 batera iritsiko gara.

Zein herrialdeetakoak? Oso herrialde anitzeko ikasleak ditugu:

Maroko, India, Bangladesh, Mongolia, Ukraina, Letonia, Errumania, Moldavia, Argelia, Peru, Chile, Albania, Brasil, Venezuela, Colombia, Cuba, Nigeria, Senegal, Mali, Mexiko, Estatu Espainiarra

Zein da haien jatorrizko hizkuntza?

Batzuena errumanua, besteena mongoliako hizkuntza, errusua beste batzuen, arabiarra, gaztelania, portugesa,

2. Noiztik datoz etorkinak eskola honetara?

Orain dela hamalau-hamabost bat urte jaso genituen lehen etorkinak.

3. Zer egin du eskolak egoera horri erantzuteko?

Eskolak harrera plana osatu du. Zehaztuta dugu ze nolako pausuak emango ditugun ikaslea eskolara etorriko dela jakin bezain pronto. (Eskolaratze batzordetik bidalitako kasuetan) Eta hizkuntza indartzeko irakaslearen laguntzari esker euskara ikasteko lehen urratsak ematen dituzte, eta horrekin batera beraien eskola ibilbidea halaik eta arrakastasuna izan dadin beharrezko pausuak jorratzen dira.

4. Egoera berri horri erantzuteko laguntzarik jaso duzue Administrazioaren aldetik?

Plantillan Hizkuntza Indartzeko Irakaslea dugu (HIPI). Gure kasuan irakasle eta erdi. Hori kopuruaren baitan dago.

5. Badago Hizkuntza Planik eskolan?

Harrera plana dago eta Ikastetxeko Hizkuntza proiektua osatua eta onartzeke dago.

Ikasleen jatorrizko hizkuntzen trataera eskolan

6. Zelako garrantzia ematen dio eskolak ikasleen jatorrizko hizkuntzei?

Egia esan, ez diogu ematen izan beharko lukeen garrantzia. Saiatzen gara, eskolara etorri berriak direnean, beraien hizkuntzan testuren bat prestatzen, irakurketan nolako maila duten ikusteko. Hizkuntza errefortzuko irakasleak ulertu ahal izateko baliabide teknologikoek eskaintzen dituzten programei esker hasierako elkar ulertzeko bidea jorratzen du.

7. Eskura al dago guztientzat ikastetxeari buruzko informazioa, jatorrizko hizkuntza bestelakoa denean?

Hezkuntza Sailak bere web orrian familientzako Hezkuntza sistemari buruzko informazioa hainbat hizkuntzatan du. Gerta daiteke horietako batean ez egotea. Gaur egun arazo hori saihesteko teknologiak aukera handiak eskaintzen ditu.

8. Nola tratatzen ditu eskolak ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak?

HUPI irakasleak bere hizkuntza kontuan izaten du, hasierako harrera unean. Ikaslea egokituta duen gelan ikasleekin hainbatetan bere hizkuntza eta herrialdeari buruzko aipamenak egiten dira. Nola idazten dira esaldi arruntenak, e.a.

9. Eskolak ba al du ikasleen kultur testuinguru bera eta hizkuntza bera duen norbait eurei irakasteko eta laguntzeko?

Eskola saiatzen da eta ikasleen hizkuntza ezagutzen ez duenean, eta komunikatzeko zailtasuna dagoenean, hizkuntza bera duten beste ikasleetaz baliatzen gara, eta itzultzaile eta komunikazioa errazteko bideratzaileak dira. Hasieran ikasle horiek enbaxadore gisa aritzen dira.

Familia eta eskolaren arteko harremana

10. Zergatik erabakitzen dute, oro har, familia etorkinek haien seme-alabak D ereduan izenematea?

Irunen etorkinak eskolara etortzeko bi bide daude:

Bat, ikasleak Irunen edota probintzian jaio direnean eta ohiko matrululazio prozesua egiten dutenean, normalean hurbileko ikastetxea aukeratzen dute. Gaur egun Irunen ia guztiak D ereduak dira, beraz ez dute aukera anitzik. Ezagunen esperientziak eta ikastetxean ezagunak izateak eskolan matrikulatzeko eragina izaten du.

Bigarrena, behin ikasturtea hasita dagoenean, ikasle berantiarrak direnekoa izaten da:

Ikasleen familiek ez dute normalean ez ikastetxea ezta hizkuntza eredia aukeratzen. Edo Irungo Udaleko Hezkuntza zerbitzura jotzen dute, edota herrian ezagutzen duten jendearen bitartez herriko ikastetxeren batera joaten dira plaza eskatzera. Bai udalak eta baita ikastetxeak ere eskaera Hezkuntza sailera bideratzen dute, eta ikastetxeen egoera aztertuz, ea eskatutako mailan plaza dagoen, edota zenbat ikasle etorkin dauden eskatutako mailan,

orduan Hezkuntza sailak ikastetxe bat esleitzen dio ikasleari. Hori eskolaratze batzordeak egiten du.

11. Hizkuntza paisaia ez da ikasleen ama hizkuntza askotan agertzen, baloratu duzue inoiz familiei laguntza eskatzea horrelako informazioa haien hizkuntzetara itzultzeko?

Aurten Hizkuntza proiektua egitean gaia agertu zen eta bagenuen hori egiteko asmoa, baina Covid-19k ekarri duen eskola ixteak galerazi du. Badugu eskolako sarreran monitore bat eta bertan hainbat berri agertzen dira. Bertan esaldi arruntenak eskolan dauden hizkuntzetan agertzea zen gure asmoa. Aukera izatean berrartuko dugu.

12. Nola bideratzen da familia eta irakasleen arteko komunikazioa (banakako bileretan eta bilera orokorretan) familien hizkuntza bestelakoa denean?

Orain dela urte batzuk Hezkuntza Sailak itzultzailearen baliabidea eskaintzen zion ikastetxeari. Gaur egun figura hori desagertu da eskoletatik. Normalean ea familia guztiek badute inguruan gaztelaniaz moldatzen den norbait. Persona horrekin etortzen ohi dira eskolara lehenengo egunetan eta persona hori izaten da eskola eta etorkinen fanmilien arteko bitartekaria. Komunikatzeko zailtasunak egoten direnean berarengana jotzen dugu. Eta bilerak egiteko ere gaztelania ulertzen duen norbaitekin etortzen dira.

2. ERANSKINA

IRAKASLEARI EGINDAKO GALDERAK

Ikasleen ama hizkuntzei buruzko datuak

1. Zenbat ume daude gelan?
2. Horietatik, zenbat dira etorkinak eta zenbat dira familia etorkinetik datozenak baina tokian jaiotakoak?
3. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?

Ikasleen ama hizkuntzen trataera gelan

4. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?
5. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki behar dute gelako hizkuntz paisaian?

6. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?

7. Jatorrizko hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da?

Erantzuna baiezkoa bada, nola?

8. Ze praktikak egin dituzue gelan umeen jatorrizko hizkuntzak balioesteko?

Familiekiko harremana

9. Zenbat familia ez dira gaztelaniaz ondo moldatzen?

10. Horrelakoetan, interpreterik eskatzen duzue?

11. Nola bideratzen duzue batzar orokorretako komunikazioa?

IRAKASLEARI EGINDAKO GALDETEGIA ADIBIDEA- Dunboa Ikastetxea

Ikasleen ama hizkuntzei buruzko datuak

1. Zenbat ume daude gelan? 21

2. Horietatik, zenbat dira etorkinak eta zenbat dira familia etorkinetik datozenak baina tokian jaiotakoak?

4 etorkin eta 10 etorkinen seme- alabak

3. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?

Portugesak, errusiera, arabiarra, bere -berea, alemaniera, gaztelania (Argentina), gaztelania.

Ikasleen ama hizkuntzen trataera gelan

4. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?

Kontutan hartzen da bakoitzaren jatorria baina egunerokoan ohituak gaude ikasle eta irakasleak hizkuntza ezberdinekin bizitzera.

5. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki behar dute gelako hizkuntz paisaian?

Bai eta badute gurean, agurtzerako orduan, eskerrak emateko orduan eta abar erabiltzea ez dago gaizki.

6. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?

Eskolan ez.

7. Jatorrizko hizkuntza bera duten adin ezberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da?

Hizkuntza aldetik ez da nabarmentzen hori.

Erantzuna baiezkoa bada, nola?

8. Ze praktikak egin dituzue gelan umeen jatorrizko hizkuntzak balioesteko?

Urtero kulturartekotasun astea ospatzen da eta tutoritza saioetan eta erlijioaren alternatibako orduan herrialde ezberdinetako kultura eta ohiturak lantzen dira.

Familiekiko harremana

9. Zenbat familia ez dira gaztelaniaz ondo moldatzen? 1

10. Horrelakoetan, interpreterik eskatzen duzue?

Telefonoz teleinterpretazio zerbitzuarekin.

11. Nola bideratzen duzue batzar orokorretako komunikazioa?

Pantalla handian jartzen ditugu presentazioak eta horiek euskaraz idazten ditugu eta ahoz esaten diegu batzarran daudenen arabera euskaraz, gaztelaniaz eta kasuren batean ingelesez edo frantsesez zerbait ulertzen ez dutenean, irakaslearen hizkuntza mailaren arabera, noski.

3. ERANSKINA

BEHAKETA ZERREDA

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN PRESENTZIA

1. Seinaleak, oharrak eta ikastetxean ikusgai jarritako materialak hainbat hizkuntzatan daude, eta kultura-ikuspegi pluralak islatzen dituzte.

Bai Oraindik ez Ez

2. Ikasleen etxeko hizkuntzak erabiltzen dira eskolaren iragarpenetan, gurasoen bilera eta elkarrizketetan, kultura-ekitaldi eta –emanaldietan, eta abarretan.

Bai Oraindik ez Ez

3. Ekitaldi bereziak antolatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko.

Bai Oraindik ez Ez

4. Liburutegian ikasleen etxeko hizkuntzatan idatziriko liburuak aurki daitezke.

Bai Oraindik ez Ez

5. Ikasgelan ikusgai dena ikasleen hizkuntzetan idatzita dago.

Bai Oraindik ez Ez

6. Ikastetxeko web orrialdea ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.

Bai Oraindik ez Ez

7. Ikasleei esaten zaie nahieran aukeratu dezatela zer hizkuntza erabili eskolan jendarteko harremanetan.

Bai Oraindik ez Ez

8. Irakasle guztiak ikasle guztien izenak ondo ahoskatzen ditu.

Bai Oraindik ez Ez

9. Sarrera-irteerako agurretan ikasleak ama hizkuntzan egiteko aukera du.

Bai Oraindik ez Ez

10. Irakasleak ikasle guziten ama hizkuntza ezagutu eta hitz egiten ditu.

Bai Oraindik ez Ez

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN ERABILERA GELAN

11. Ikasleek eta irakasleak elkarren izenak esan ditzakete

Bai Oraindik ez Ez

12. Irakaslea elkarrizketez baliatzen da ikasleei elkar ezagutzen laguntzeko.

Bai Oraindik ez Ez

13. Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketetan ikasleen ama hizkuntzaren hitzak erabiltzen dira ikasi nahi denaren esanahia negoziatzeko.

Bai Oraindik ez Ez

14. Irakasleak ezagunak ditu ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde.

Bai Oraindik ez Ez

15. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasleak, hezkuntzan erabiltzen ez dena, elkarren artean honetan hitz egitea debekatuta dago.

Bai Oraindik ez Ez

16. Ama hizkuntza bera duten adin desberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da.

Bai Oraindik ez Ez

17. Eskolaz kanpoko jardueretan ikasleen ama hizkuntzak irakasten dira.

Bai Oraindik ez Ez

GURASOEN PARTE HARTZEA

18. Gurasoekiko komunikazio idatzia haiek ulertzen duten hizkuntza batean egiten da.

Bai Oraindik ez Ez

19. Gurasoek ikastetxean ikusgai jarritako materialak egiten laguntzen dute, haien ama hizkuntzan idazten eta itzultzen.

Bai Oraindik ez Ez

20. Gurasoek edozein zalantza argitzeko irakaslearekin hitz egiteko aukera dute.

Bai Oraindik ez Ez

BEHAKETA ZERRENDA BETETA – Rikardo Baroja Ikastetxea

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN PRESENTZIA

1. Seinaleak, oharrak eta ikastetxean ikusgai jarritako materialak hainbat hizkuntzatan daude, eta kultura-ikuspegi pluralak islatzen dituzte.

Bai Oraindik ez Ez

2. Ikasleen etxeko hizkuntzak erabiltzen dira eskolaren iragarpenetan, gurasoen bilera eta elkarrizketetan, kultura-ekitaldi eta –emanaldietan, eta abarretan.

Bai Oraindik ez Ez

3. Ekitaldi bereziak antolatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko.

Bai Oraindik ez Ez

4. Liburutegian ikasleen etxeko hizkuntzatan idatziriko liburuak aurki daitezke.

Bai Oraindik ez Ez

5. Ikasgelan ikusgai dena ikasleen hizkuntzetan idatzita dago.

Bai Oraindik ez Ez

6. Ikastetxeko web orrialdea ikasleen ama hizkuntzetan irakur daiteke.

Bai Oraindik ez Ez

7. Ikasleei esaten zaie nahieran aukeratu dezatela zer hizkuntza erabili eskolan jendarteko harremanetan.

Bai Oraindik ez Ez

8. Irakasle guztiak ikasle guztien izenak ondo ahoskatzen ditu.

Bai Oraindik ez Ez

9. Sarrera-irteerako agurretan ikasleak ama hizkuntzan egiteko aukera du.

Bai Oraindik ez Ez

10. Irakasleak ikasle guziten ama hizkuntza ezagutu eta hitz egiten ditu.

Bai Oraindik ez Ez

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN ERABILERA GELAN

11. Ikasleek eta irakasleak elkarren izenak esan ditzakete

Bai Oraindik ez Ez

12. Irakaslea elkarrizketez baliatzen da ikasleei elkar ezagutzen laguntzeko.

Bai Oraindik ez Ez

13. Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketetan ikasleen ama hizkuntzaren hitzak erabiltzen dira ikasi nahi denaren esanahia negoziatzeko.

Bai Oraindik ez Ez

14. Irakasleak ezagunak ditu ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde.

Bai Oraindik ez Ez

15. Gelan ama hizkuntza bera duten ikasleak, hezkuntzan erabiltzen ez dena, elkarren artean honetan hitz egitea debekatuta dago.

Bai Oraindik ez Ez

16. Ama hizkuntza bera duten adin desberdinetako ikasleen elkar laguntza sustatzen da.

Bai Oraindik ez Ez

17. Eskolaz kanpoko jardueretan ikasleen ama hizkuntzak irakasten dira.

Bai Oraindik ez Ez

GURASOEN PARTE HARTZEA

18. Gurasoekiko komunikazio idatzia haiek ulertzen duten hizkuntza batean egiten da.

Bai Oraindik ez Ez

19. Gurasoek ikastetxean ikusgai jarritako materialak egiten laguntzen dute, haien ama hizkuntzan idazten eta itzultzen.

Bai Oraindik ez Ez

20. Gurasoek edozein zalantza argitzeko irakaslearekin hitz egiteko aukera dute.

Bai Oraindik ez Ez